



Amezketako udaleku irekiak 2020



Koordinatzailearen memoria

Aurkibidea**Orria**

1. Sarrera_____	3
2. Udaleku irekiak orokorrean_____	4
3. Programaketa_____	4
4. Aurre prestaketa_____	7
5. COVID 19_____	8
6. Begiraleak_____	10
7. Koordinatzailea_____	11
8. Gurasoak_____	13
9. Haurrak_____	13
10. Hobekuntzak hurrengo urteari begira_____	14

1. Sarrera

Dokumentu honetan, Amezketako udaleku irekiaren memoria adierazten da. Bertan, gurasoei inkesta bat pasa zaie online, ludotekako azken astean eta 20 erantzun jaso dira totalen. Inkesta, galdera ireki eta itxiez osaturik dago, irekian ebaluatzeko 1etik 5tera ebaluatzeko eskatu zaie.

Begiraleei ere inkesta pasa zaie, hauei ere gurasoei bezala galdera irekiz eta itxiz osaturiko galdetegia pasa zaie ea koordinatzaileak ere ataletan bere iritzia adierazi du.

2. Udaleku irekiak orokorrean:

a. Gurasoek oso ondo ebaluatu dute orokorrean ludoteka denek, hemen galdera itxia zenez 1etik 5tera ebaluatu dute. 38 erantzunetik honela geratu da:

4 puntuazioa: 8 pertsonak.

5 puntuazioa: 12 pertsonak.

Puntuaketa horiek kontuan izan da, gurasoek oso gustura geratu direla eta ludoteka oso ondo ebaluatu dutela esan daiteke.

b. Begiraleek ere denek 5 puntutan ebaluatu dute ludoteka, puntuaketa hori kontuan izanik, begiraleak oso gustura egin dutela lan esan daiteke.

c. Koordinatzaileak, 5 puntu ematen dio ludotekari. Ludoteka bezala herrian dauden adin tarte ezberdinen arteko harremana sustatzen dutelako, hau da, haurretatik hasita guraso bitarte. Honetaz gain, udaleku ireki hauetan balore ezberdinak transmititzen saiatzen gara bertako hezitzaileak, hala nola, harremanak, elkarlana, Amezketak herri bezala daukan garrantzia, natura eta euskara.

3. Programaketa:

a. Gurasoei eta begiraleei programaketa ebaluatzeko eskatu zaie bi eratara, lehena galdera itxien bidez eta bigarrena, irekiaz. Hori kontuan izan da, hurrengo puntuetan gurasoek programaketaren inguruan duten iritzia adieraziko da:

- Gurasoak, 20 erantzun jaso dira eta horietatik 6k 4 puntu eman die eta beste 14k 5 puntu. Honetaz gain, honako iritzia eman dituzte galdera irekitan, zer gustatu zaien gehien eta zien gutxien galdetu zaie:

- o Gehien:

- Uraren eguna
- Egoera izanda ere, Amezketako Udalak udalekuak antolatzeke erabakia hartu izana eta mantendu izana.
- Irteera
- Umeak beraien artean jolasteko aukera, konfinamentuaren ondoren ez da errega izan gure etxean. Gogorik gabe kalera ateratzeko. Kirola egin dute San Martinera, Larraitzera... garrantzitsua iruditzen zait.
- Larraitzeko irteera

- uraren eguna eta zazpi iturrira irteera
 - Antolakuntza oso ona iruditu zait, bai egunerokotasunean eta baita protokoloarekin ere. Gainera, haurra oso gustora ibili da, inor ez zuela ezagutzen eta bera oso urduria dela kontuan hartuta, lan bikaina egin dutela azaltzen dit bere jarrerak.
 - Uraren eguna, txindokiko itzala, irteerak...
 - Larraitzera irteera
 - Lo que mas me gusta es que mantienen a los niños entretenidos y activos
 - Irteerak ondo egon dia, hemen inguruan.
 - Juegos participativos al aire libre , día del agua.
 - Irteerak. Kirola eginez San Martin, Larraitz
 - oso gustora ibili dira begiraleekin
 - Ibilaldiak
 - Antolatutako ekintzen barietatea
 - Orokorren dena! Ta egoera honen aurrean hartu diren neurriak
- Gutxien:
- Ezer ez
 - Ez dago ezer espezialik
 - Kaja dekoratzea
 - Ez dago gustatu ez zaitenik.
 - Dena ondo dago
 - Ez daukat bat esateko ere
 - Eskulanak
 - Me a gustado todo
 - Ezer ez.
 - Los dos niños han estado muy a gusto con todas las actividades, creo que han sido bastante variadas.
 - Pintatzen egondakoa
 - Ez dago ezer berezirik gustatu ez zaidanik.
 - 3 egun bakarrik eukitzea
 - Dena ondo

- Talde ezberdiñetako haurrak izanda egun batzutan leku desberdiñetan jaso edo utzi behar izatea.
- Begiraleek honela aipatu dute programaketaren inguruan: 8 ebaluaziotik 5k 5 bat eman dute eta beste bik, 4 bat. Gurasoenan bezala, galdera ireki bat jarri zaie honen inguruan adierazteko eta ondorengo idatzi dute:
- Gehiena:
 - Guneetan egoteaz gain herrian egindako jarduerak oso aberasgarriak iruditzen zaizkit herritarrekin eta herriarekin harreman zuzena edukitzeko aukera ematen dutelako. Horrez gain, Amezketako inguruetara egindako irteerak ludotekako “errutinatik” ateratzeki aukera eman dute.
 - Ekintza asko egon dira arrakasta izan dutenak, txikien taldean Uraren eguna, psikomotrizitate saioa eta san martin nabarmenduko nituzke.
 - Uraren eguna. Umeez gain ekintza honetan begiraleok ere ume bihurtzen gara eta hori asko gustatzen zait
 - Uraren eguna
 - Uraren eguna eta talde ertaineko haur guztiek elkarrekin egin dituzten jolasak.
 - Uraren eguna eta euskal herria eguna
 - Irteerak San Martin eta Larraitzera
 - Gutxiena:
 - Landare eguna
 - Aurtengo egoera dela eta ludotekako ekintzak egoerara egokitzea, edo zenbait ekintza interesgarri baztertu behar izatea.
 - Txikienekin, eskulanak aldatuko nituzke orokorrean ez zuela arrakasta handiegirik izan iruditze zait.
 - Munduko jolasak. Jolas ezberdinak egin genituen baño oso monotonoa iruditu zitzaidan

- Jaialdi prestaketa egin genuen eguna gustatu zait gutxien, baina amaieran jaialdia egiteko beharrezkoa da egun hau
 - Dena gustatu zait orokorrean.
- b. Koordinatzaileak programaketa guztiak 5 batekin ebaluatzen ditu, programaketan ez da aldaketa asko egon, baina moldaketak behar ziren guztietan begiraleak lan asko egin dute.

4. Aurre prestaketa:

- a. Aurretiaz emandako informazioa edota jasotako informazioa: aurten, COVID-19arengatik ezin izan dugu urtero bezala egiten zen gurasoen bilera egin eta orduan, helbide elektronikoko baten bitartez helarazi zaie informazioa. Horretarako, aurkezpen txiki bat prestatu zitzaien.

- Gurasoei galdera hau era ireki batean galdetu zaie eta honelako gauzak adierazi dituzte:
 - Nahikoa
 - Bai
 - Bai, nahikoa izan da.
 - Egoera hau dela eta ez zen erraza izango antolakuntzarentzat, bera, bai, nahikoa izan dela esango nuke. Hala ere ez zait gehiegi gustatu informazioaren formatua...
 - Aurreko urtekoak ezagututa nahikoa.
 - Informazioa egokia izan da
 - Nahikoa.
 - Bai. Ezerrez
 - Egoera berezi honen aurrean iruitzen zait, emandako informazioa nahikoa izan dela
 - Me parece que la información recibida es adecuada.
 - Informazioa nahikoa izan da.
 - Nahikoa
 - Hemos tenido información suficiente y para cualquier cosa habéis estado disponibles.

- Nahikoa iruditu zait
 - Dena ondo
- **Beginaleak** honela ebaluatu dute: 6k 5 puntu eman diete eta batek 4 puntu. Ondorenen aurretiazko lana beste modu batera lan egingo zuten edo aldaketak egin zituzten galdetu zaie eta honela erantzun dute:
- Ez dut ezer bota faltan, programaketa betetzeko emandako dokumentuak eta egindako bilerek asko lagundu dute programaketa egiten eta ekintzak kokatzen.
 - Programaketa egiteko erabili dugun metodologia egokia iruditu zait (hasieran taldean eta gero egunak banatu eta norberak landu). Denboraz ere ondo ibili gara.
 - Ez dut ezer bota faltan
 - Ez, egin dugun guztia oso gustura egin dut
 - Ez, dena ondo!
 - Azpi taldeek ekintza gehiago bateratuak egitea
 - Orokorrean ondo antolatu gara iruditzen zait eta dena ondo atera dela.
- Gurasoen bilerari dagokionez, aurtengo egoera ikusita zein dan horrela egitea egokia zela iruditu zitzaion koordinatzaileari, eta urtero bezala, programaketa gurasoei ematea oso aberasgarria horrela beraiek ideiarene bat eduki dezaten. Horretarako, begirale lan taldeak egindako lana oso garrantzitsua dela iruditzen zaio koordinatzaileari eta ikusita aurtengo begiraleen lan taldeak nola egin duen lan, hori gero nabarmen da gurasoen aurrean.

5. COVID 19:

- Kasu honetan, gurasoei bakarrik galdetu zaie COVID-tarengatik eginiko aldaketak nolakoak iruditu zitzairen edota egokiak iruditu zaizkien eta horretarako, galdera ireki moduan galdetu zaie eta honelako iritziak bildu dira:

- Bai
- Bai, egokia izan da.
- bai, egokiak izan dira, eta dirudienez ondo funtzionatu dute hartutako neurriek.
- Egokia. Hala ere behar dutenentzako 5 egunetako zerbitzua izatea interesgarria izango zen.
- Bai oso ondo. Umea oso gustora joan da eta neurriak oso egoki. Lagun artean pozik ibili da
- Bai, nire ustez umeak gustorago eta libreago sentitu dira talde txikietan
- Oso egokia. Egoera honen ondorioz, zalantzak izan genituen haurra udalekuetara eramatearekin, baina ondoren oso lasai egon gara antolakuntza ikusita.
- Oso egokia antolaketa
- Egokiak
- Me parece que los cambios han sido adecuados porque han respetado las medidas de seguridad.
- Oso ondo
- Antolakuntza ona izan da.
- Egokiak izan dira
- Han sido adecuados. Pero creo que al ser un pueblo pequeño hemos tenido menos problemas para adaptarnos.
- Bai dugun egoerakin zuzenak iruditu zaizkit aldaketak. Baina nere ustetan egunero izan behar zen ludoteka
- Egokiak.
- Oso ondo iruditu zait egoera dagoen bezela talde txikiagoak egitea. Beraiek ere gustorago ibili direla iruditu zait.
- Bai. Neurriak asko zaindu dituzuela uste det eta haurrak eremu desberdiñetan banatu izana oso egokia iruditu zait. Oso lasai sentitu gera.

6. Begiraleak:

a. Gurasoei berain seme alaben begiraleak ebaluatzeko aukera eman zaie, 1-5 bitarte eta beraien inguruko iritzi bat emateko aukera eskainiz. Honako hauek izan dira puntuazioak:

- 1 puntu: 0
- 2 puntu: 0
- 3 puntu: 0
- 4 puntu: 2
- 5 puntu: 18

Iritziak honako hauek izan dira:

- Jarrera oso egokia, lehen momentutik eroso sentitu dira haurrak.
- umeek, begiraleekin, oso oso harreman polita dutela nabari da, zorionak!!
- Gustora joan da egunero eta ikusi dudanetan tratatu goxoa izan du.
- Oso ondo begiralearekin. Umea oso gustora ibili da beti
- Bikaina
- Kontuan izanda haurrari espazio berrietara moldatzea nola kostatzen zaion, esan beharra daukagu oso gustora ibili dela Garazikin. Asko hitz egin digu berari buruz, seinale oso ondo adaptatu duela taldean. Harrituta gaude zein lasai eta gustora etorri den haurra egunero. Begirale bikaina.
- Umeak oso gustura ibili dira
- Ni oso gustora nagi tokatu zaigun begiralearekin!
- Oso gustora ibili da
- Me parece amable y atenta
- Oso jatorra eta gozoa. Mila esker.
- Oso gustora, ta jatorra dela esan digu haurrak, beraz, oso ondo!!
- Oso neska jatorra eta gozoa. Zoriontzekoa

- Los dos niños están muy contentos con sus respectivas monitoras y les han dado confianza suficiente para sentirse tranquilos con ellas.
 - Harreman ona izan dute. Gustora Joan dira eta oso ondo pasa dute beraiekin
 - Alabak begiralea ez zuen ezagutz3n baina oso gustora egon da
 - Oso gustora
 - Oso gustora egon da
 - Haurrak gustora ibili dira eta oso gertukoak iruditu zaizkit biak
 - Dena ondo
- b. Begiraleei begiraleen lan taldearen inguruan galdetu zaie eta 6k 5 puntu eman dizkiote eta bakar batek 4 puntu. Galdera irekian moduan ere galdetu zaie:
- Oso oso gustora egon naiz, begirale guztiak gertukoak eta oso atseginak iruditu zaizkit.
 - Lan talde polita osatu dugula iruditzen zait. Beraiekin lana egin dudan aurreneko urtea izan da, eta hasieratik talde lanean aritzea erraza egin zait, integratua sentitu eta oso eroso aritu naiz lanean.
 - Talde ikaragarria izan da. Oraingo egoera berezi honetara moldatzen ikasi dugu.
 - Oso giro polita eduki dugu gure artean
 - Talde ederra osatu dugula uste dut.
- c. Begiraleak bai harremanean eta baita ere, lan egiteko eran 5 puntu ematen diote koordinatzaileak. Oso lan potentea eta oso lan ona egin dute hezitzaileak.

7. **Koordinatzailea:**

- a. Begiraleen kasuan bezala, koordinatzailea ebaluatzeko eskatu zaie gurasoei:
- 1 puntu: 0
 - 2 puntu: 0
 - 3 puntu: 0
 - 4 puntu: 5
 - 5 puntu: 15

Iritziak honako hauek izan dira:

- Uneoro informazioa helarazi du. Bikiain.
 - Informazioa garbiago jaso izatea bota dut faltan, baina egoera hau dela eta ulergarria da gauza asko azken momentura arte ezin aurreikusi izatea. (Espero dut orain idatziko dudana ez gaizki hartzea...) Oharrak idazterakoan EUSKARA gehixeago zaintzea proposatzen dut, akats eta erdarakada dexente topatu ditut... eta euskarak garrantzi handia duen herri batean merezi du ahalegin hori egiteak! Animo!!
 - Beti egon da behar izan dudanean.
 - Oso ondo
 - bere laguntza behar izan dudan guztietan hor egon da eta horrek konfidantza handia ematen du,eskerrikasko
 - Askok eskertu beharra daukat koordinatzaileak guregan egindako esfortzua. Epez kanpo ibili bait ginen haurraren izen ematean.
 - Iritzi ona daukat
 - Ondo egiten du bere lana
 - Oso ona
 - Dudan bat dugunean, segituan azaldu digu nola den,...gertukoa iruitu zait eta saiatua.
 - 🙌🙌
 - Me he podido comunicar con fucha facilidad con ella sin ningún problema.
 - Behar denean beti hor dago
 - Gustora
 - Lan ona egiten duela iruditzen zait. Lan taldearen antolamendu ona ikusi da eta gure hurrek aurtan hain beharrezkoak zituzten egun politak pasatzea bideratu dezue. Mila esker!!!!
- b. Begiraleak egunerokotasunean aritzen dira koordinatzailearekin kontaktuan eta beraiek oso ondo ebaluatu dezakete bera, kasu honetan ere guztiek 5 puntu eman dizkiote.Koordinatzailearen inguruan iritzia bildu nahi da ere eta honela esan dute:

- Nahiz eta aurretiaz ez ezagutu, ludotekaren funtzionamendura egokitzeko erraztasunak eman dizkit. Uneoro egon da gure beharrei eta eskakizunei adi, beti laguntzeko prest.
- koordinatzaile aparta, egoera honetan ludoteka aurrera eramateko egin duen lana benetan txalotzekoa izan da.
- Ardura handia erakutsi du eta dena ongi antolatuta eduki dugu berari esker
- Lan oso ona egin du, bizi izan dugun egoera kontutan izanda bereziki berari eskerrak eman beharrean gaude.
- Oso adeitsu jokatu du. Ez dugu ezeren falta izan

8. Gurasoak:

- a. Begiraleak gurasoekin zuzenki izaten dute harremana, eta beraiek zein baino hobe ebaluatzeko harreman hori.4 begiralek 5 puntu eta beste hiruk 4 puntu.

9. Haurrak:

- a. Begiraleak egunero egon dira hurrekin harremanetan eta beraiekiko izan duten harremana ebaluatzeko eskatu zaie: bostek 5 puntu eman dizkiote eta bik 4 puntu. Hemen ere beraien iritzia bildu da.
 - Oso gustora egon naiz, pena bakarra umeetako bat oso gutxitan etorri dela ludotekara.
 - Talde oso jatorra, elkar ezagutzen ez ginela kontuan izan da hasierako momentutik oso ondo hartu naute, azken finean oso gertuko tratua eduki dugula iruiditzen zait . Haur bakoitzaren izaera kontuan izanik, denek jarri die xarma taldeari.
 - Izaera ezberdinetako haurrak izan ditut eta hori oso aberasgarria iruditu zait. Esan behar da haur batzuk zerbait esaterako garaian formak galdu egiten dituztela baino segituan konturatzen dira zer egin duten.
 - Talde bikaina

- Haur bikainak dira, elkarren beharra zutela antzeman da ludotekaren hasieratik. Orokorrean oso gustura gerturatu dira egunero eta penaz daude aurtengo udako esperientzia bukatzen delako.
- Talde dinamikoa eta parte hartzailea. Ekintzak aurrera eramateko bikaina

10.Hobekuntzak hurrengo urteari begira:

a. Gurasoak honako gauzak aipatu dituzte:

- Hori, antolatzaileen esku! Primeran egiten duzue eta!!
- 5 egunetako aukera. Bestela oso gustora.
- Dena ondo
- ez nuke ezer aldatuko,
- Ez daukat iradokizun berririk honen inguruan, aurtengo udalekuak egokiak iruditu zaizkit.
- Aurtengoa ondo egon da daukagun egoerarako, hurrengo urtean egoera normala bada, aurreko beste urteetan egin dena mantenduko nuke.
- Horrela jarraitu ez gero ni ados!
- Mendi irteerak eta irlara
- Añadiria mas juegos relacionados con el agua
- Asteko egunak, Astelehena,asteazkena eta ostirala jarriko nituzje
- Horrela mantenduko nuke
- Asteko egunak Astelehena, asteazkena eta ostirala jarriko nituzke
- A mi me parece muy importante mantener la comunicación de este año sobre las actividades a realizar sobre todo porque personalmente no he podido llevar ni recoger a los niños y esa información me ha permitido estar bien informada.
- Egunero jartzea eskertuko nuke. Baina eskerrak eman nahi nizkizuen egoeran egon diren aldaketak egon da ere Aurrera jarraitu dezuelako lanean. Gure aurrek asko eskertu dute. Mila esker
- 5 eguneko aukera, kirol aktibitate eta irterrak irlara adib.
- Egunero jartzea
- Ibilaldi gehiago..

- Ekintzak aurten bezela herri inguruan izatea mantenduko nuke. Kanpora egiten diren irteerak beti dute harrisku gehiago eta etzaizkit beharrezkoak iruditzen
- Ezer ez

b. Begiraleei ere iritzia galdetu zaie:

- Ludoteka 3 egunetakoa izan beharrean 5 egunetakoa izatea. Eguneroko ekintza bihurtzean hurrekin lortzen den harremana eta lotura handiagoa baita, eta jarduera eta plan ezberdinak egiteko aukera gehiago ematen du.
- Proposamen modura: hurrengo urteari begira ahal bada bost eguneko eskaintza egitea.
- Ludoteka egunak astelehena asteazkena eta ostirala izatea.
- Ez nuke ezer aldatuko
- Datorren urteko programaketan zati bat gehituko nuke, jolasak proposatuz. Izan ere, batzuetan momentuan bertan jolasetaz gogoratzea ez da erraza izaten.
- Hurrekin kanpora irteera
- Oso ondo antolatu dugula eta garela iruditzen zait! Ez daukat ezer gehitzekorik, hurrak oso oso gustora eta ni ere bai. Agian egoerak hobera egiten badu irteeraren bat egingo nuke.

c. Koordinatzaileak ere honen inguruan bere iritzia eman du: aurtengoan oso urte berezia izan dela denak dakigu eta moldatu egin behar izan garela egoera honi. Lan asko egin dute, bai koordinatzaileak, bai begiraleak eta baita udalak ere. Baina hurrengo urteari begira (espero da aurtengo egoera berdinean ez egotea), udaleku irekiak 5 egunetakoa izatea garrantzitsua dela ikusten da, alde batetik haur begirale arteko harremana sendotzeko eta areagotzeko eta beste alde batetik, haurren heziketa ez formalak izugarritzko garrantzia duelako. Eta nola ez, herriari eta amezketarrei izugarritzko bizipoza ematen diolako umean herrian zehar alai eta hezitzen aritzeak.

